

Salba dezagun Iruña-Veleia

- *Jexux Eizagirre Portillo*

Iruña-Veleia da aztarnategi bat, antzinako aztarnen kokaleku, Gasteiztik 10 kilometrotara dagoena, Iruña Oka herrian. Iruña-Veleiako lurpean ezkututzen dira 1.500 urte baino gehiagoko aztarnak. Duela 10 bat urte, arkeologoek, Eliseo Gil buru zelarik, 400 grafito aurkitu zituzten, erromatarren garaikoak, hain zuzen. Bazituzten latinezko eta **euskarazko** esaldiak ere. Eta esaldi horien mezua, berriz, kristautasunarekin zegoen lotua, hainbat kasutan.

Handik bi urtetara, Martin Almagro Gorbea jaunak (zeina baita “Anticuario perpetuo de la Real Academia de la Historia”, bere biografian jartzen duenez) honako adierazpen hau egin zuen: “Los grafitos de Iruña-Veleian o son una broma o una estafa”. Akusazio horrek oihartzun handia izan zuen prentsan eta gainerako mediorik indartsuenetan. Gero, euskal filologo batzuek ere faltsutzat joko zituzten grafitoak, eta, azkenik, Arabako Aldundiak, duela 8 urte, kaleratu egingo zituen grafitoak aurkitu zituzten arkeologoak: Eliseo Gil-eta. Eta orduz geroztik, inork ere ez die inolako lanik ematen. Baina, gauza ez zen horretan gelditu: Arabako Foru Aldundiak (zeina baitzen nazionalista/abertzalea) epailetara eraman zuen Eliseo Gil, grafitoak faltsifikatu zituelako akusaziopean. Auziak 8 urte bete ditu, eta oraindik horretan dirau, ez aurrera eta ez atzera. Gainera, diru-zigor latza ordaindu beharko du Eliseok, epaia galduz gero. Artikulu hau dela medio, hainbat arrazoi azalduko ditut Eliseo Gil arkeologoaren alde, eta akusatzaileen kontra; bereziki Joseba Lakarra filologoak egin duen teoriaren aurka. Orduko euskaldunek ez omen zuten *urdin* hitza erabiltzen, izarren kolorea adierazteko. Horregatik jo dute faltsutzat grafito bat, teoria hori hankaz gora bota dezakeelako.

Urdin, zeruan, izarra
haserre dago Lakarra
Eliseo Gil gizarajuai
berotu dio bizkarra

Ditxosozko *urdin* hitz hori, grafito batean dator modu honetan.

VRDIN [edo VRDIAN]

X

ISAR

Ikusi grafitoa, irudi honetan (*irudia 1*)



Irudia 1: VRDIN X ISAR

Joseba Lakarra filologoaren autoritatea erabakigarria izan da grafito hori faltsutzat jotzeko garaian. Hara zer azalpen erabili duen autoritate horrek grafitoa faltsutzat jotzeko (Lakarra 2008):

La cuestión de *urdin* es aún más clamorosa: ningún hablante nativo desconoce todavía hoy que *urdin* no equivale a **azul** -aparte de que ¿qué pintaban en Veleia las estrellas azules de Rubén Darío y otros modernistas?- sino, más bien, a una serie de tonalidades que incluye gamas (pero no el conjunto) de azules, verdes, marrones, grises y blancos. Es más: todavía hoy *urdin* no es solo una sensación visual sino también olfativa o gustativa, aplicable, p.e., a alimentos y texturas.

Hablante nativo horietako bat naizen aldetik, zer edo zer esan nahi nuke (neure exkaxean), *hablante nativoen* egunkari xume batean, *hablante nativoon* hizkuntzan.

Lehenik. Lakarra jaunaren azalpena irakurri eta gero, zertan gelditzen gara? Alegia, *urdin* hitzak **kolore zehatz** bat ere (**ere** diot) adierazten du, bai ala ez?

Hortaz, Joxean Tolosa bezalako *hablante nativo* batek, telebistan pilota partidua komentatzen ari delarik, “gerriko urdina” dioenean, *urdin* hori izan daiteke **urdin antzekoa**,

berde antzekoa, larre antzekoa, gris antzekoa ala **zuri antzekoa**? Horietako edozein, baina, sekula ere ez kolore zehatz bat? Zehatzago esateko, argi zuriaren espektroko bosgarren kolorea izendatzeko, euskaldunak ez du *urdin* hitza erabili? Orduan, zer hitz erabili dute eta erabiltzen dute euskal entziklopediek, adibidez, argi zuriaren espektroko bosgarren kolorea izendatzeko?

Bigarrenik. Euskal entziklopediak eta **urdin** kolorea. Honatx zer zioen, 1970garren urtean, *hablante nativo* ezagun batzuek argitaratu zuten lehenetariko entziklopedia batek, koloreaz (Dorronsoro 1970):

*Edozein paxmaek zazpi margotan zatikatzen ditu argi-izpiak; erromako zubiaren margoak, alegia: gorria, gorriorixta, oria, orlegia, **urdiña**, anilla ta ubela*

Eta hara zer dioen gaur egungo euskal entziklopedia batek (Harluxet 1998):

urdin. Argi zuriaren espektroko **bosgarren** kolorea, berdearen eta morearen artekoa

Beraz, Joxean Tolosa, pilotaz ari delarik, “gerriko urdina” dioenean, argi zuriaren espektroko bosgarren koloreaz ari da, zehazki esanda. Kontrara, Lakarra jaunaren azalpenak "ezkutatu" egiten du *urdin* hitzak esanahi hori ere baduenik. Horregatik diogu Lakarra jaunaren azalpena iluna dela. Orain, ezkutatze hori lapsus bat izan da ala nahita egindakoa? Horra galdera.

Hirugarrenik. Bateren batek esan dezake Iruña-Veleiaren garaian ez zela ezagutzen argi zuriaren espektroa. Eta hala da noski. Baina, inolaz ere uka ez litekeena ere bada, Iruña-Veleiako garai haietan ere, *hablante nativo* jendeak ikusiko zuela *ortzadarra* edo *erromako zubia*.

Orduan, Lakarra jaunaren azalpenaren arabera, kontu xeble batekin egiten dugu topo: garai haietako *hablante nativo* jende guztiak (hangoak eta hemengoak) ez zirela gai ortzadarraren koloreak bereizteko. Izanez ere (eta betiere Lakarra jaunaren azalpenari jarraiki) *urdina* ez baita kolore zehatz bat, kolore ezberdinetako nahasketa bat baizik: **urdin antzekoa**, berde **antzekoa**, larre **antzekoa**, gris **antzekoa** ala zuri **antzekoa**.

Laugarrenik. Noiz hasi da bereizten *hablante nativo* jendea ostadarraren koloreak? Ikus dezagun 1785eko adibide hau (Egiategi *apud* Euskaltzaindia):

Nahi lukienek ekiak odeiak elukian dio, emaztiaren adiskidegoa **ostagarraren** pare dela, gorri, berde, hoilli, **urdin** kolore khanbiakor guzietarik”

Beraz, 1785garren urtean *hablante nativo* jendeak ortzadarraren koloreak bereizten bazituen, zergatik ez zuten bereziko Iruña-Veleia garaiko euskaldunek?

Besterik litzateke ipuin, mito edo legendarik izango bagenu, euskaldunen gabezia hori argitzeko. Baina, ez dago ipuin, mito edo legendarik, honelako zerbait dioenik: "Garai batean pertsonak ez zituen ortzadarraren koloreak bereizten". Esan nahi baita, antzinako euskalduna ez bazen gai koloreak bereizteko, eta gerora bai; fenomeno horrek nolabaiteko isla izango zuela ipuin, mito, legenda eta horrelako generoetan.

Bosgarrenik. Egia da *urdin* hitzak esanahi bat baino gehiago dituela. Baina, hori ez da harritzekoa, hitz gehientsuenekin horixe berorixe gertatzen baita, eta hori Lakarra jaunak ere badaki. Horregatik, hiztegiek sarrera bat baino gehiago jarri ohi diote hitz bakoitzari, esanahiaren maiztasunaren arabera. Alegia, lehenengo sarrera izan ohi da, dena delako hitz horren esanahirik erabiliena. Ikus dezagun, hortaz, euskal hiztegiek, *urdin* hitza dela-ta, zenbatgarren sarreran jartzen duten hitz horri dagokion kolore zehatza; alegia, argi zuriaren espektroko bosgarren kolorea (Azkue 1969):

urdin: 1º (AN, B, BN, G, L, S) *azul, bleu*, Beste asko, karekizko arri urdin ederra ugari ematen dutenak. Otras muchas cantera que dan piedra caliza y azul e abundancia.

Ikus dezagun ez dela kolore nahasi bat, baizik eta argi zuriaren espektroko bosgarren kolorea.



Irudia 2: “karekizko arri urdin ederra”

Seigarrenik: Euskaltzaindiaren *Orotariko Hiztegian* (Euskaltzaindia) **urdin** hitzaren lehen sarreran, hauxe dator: **azul**.

Zazpigarrenik: Zalantzak argitze aldera, ikus dezagun, zer dakarren *Real Academia Española* erakundearen hiztegiak, **azul** hitzari buruz (Real Academia Española 2017):

azul: Dicho de un color: Semejante al del **cielo** sin nubes y el **mar** en un día soleado, y que ocupa el quinto lugar en el espectro luminoso.

Zortzigarrenik. Orain ikus ditzagun zer adibide jartzen dituen Orotariko Hiztegiak, **urdin** = **azul** esaten duen estreineko sarrera horretan (Euskaltzaindia):

Firmamentu edo gañean daukagun estali **urdin** ori.

Motrikuko erriarenetan [etxarmetan] berriz kanpo **urdiñean** [itsasoan] dago txalupa bat.

Kantu ederrez betetzen dire **urdin** zeruak (Joanes Etxeberri, 1627)

Portzierto, arrantzale askorentzat alde ederra dago itsasoa **urdin** egon ala **berde**. Esan nahi baita, kasu horretan eta arrantzaleentzat (arrantzaleentzat diogu), *urdin* ez dela kolore nahasi bat.

Bederatzigarrenik. Justo Maria Mocoroa esaldi biltzaileak ere *urdin* hitza erabiltzen du zeruaren kolorea adierazteko. Eta esana dugu zeruaren kolorea, argi zuriaren espektroko 5 kolorea dela (Mocoroa 1990):

Goi **urdiña**, izar-erria, uts**urdiña**: Locuciones convencionales para referirse al **firmamento**

Hamargarrenik. Landareen koloreak. Bistan da kolore guztietako landareak eskaintzen dizkigula naturak. Ikus dezagun zer izen erabili dituen *hablante nativo* jendeak landareen koloreak bereizteko, adibidez, XIX. mendean (Apaolaza *apud* Euskaltzaindia).

Ontzi zabal bat bete sardiña, **liña** loreak baiñon **urdiñagoak**

Edo geroago (Ansorena 1968):

Zeru, itsaso eta gau izartsua baño **urdiñago** dan **errostak** onela itz egin zidan: "gordean daukat..."

Ain **urdiñ**-ederdun **yazintua**, oso kaltegarritzat daukate Ameriketa'n eta Asia'n.

ARETX-ARTE" esaten diote: ostoak **ori-urdiñak**; bere erbatzetako **urdiñ** goxoak zerupuxka bat dirudi. Ondo ezagutzen degu: onekiñ eta pitxi-lore ta pitxoleta batzuekiñ osatu bait-genduan gure lenengo lore-sorta. Alor-baztarretan bizi oi-da, lur-gañean; eta, lore **urdiñ** geienak bezela, motxa da.

Bistan da landareen adibide horietan datorren *urdin* hitza, argi zuriaren espektroko 5garren tokian dagoen kolore zehatzari dagokiola, zeru eta itsasoaren kolorearekin konparatzen dutelako. Hara hemen, Antero Apaolazak aipatzen zuen "liña-lorea", *Linum usitatissimum*, ea zein kolorekoa den (*irudia 3*):



Irudia 3 : liña-lorea

Landareekin bukatzeko, esan dezagun badela landare bat **urdin**-belar izenekoa, *Isatis tinctoria*, landare horrekin tintura urdina egiten delako.

Hamaikagarrenik. Harrien koloreak. Badakigu *Aitzkorri* mendiko *gorri* horrek ez duela kolorea adierazten, lurrik gabeko haitz bizia baizik. Baina, horrek ez du esan nahi beste kasu batzuetan kolorea adieraziko ez duenik.

Adibidez, Zumaia eta Deba bitartean badira paraje batzuk izen hauekin: **Algorri** (harri + gorri), Aitz-**beltz** eta Aitz-**zuri**. Eta horietan guztietan *gorri*, *beltz* eta *zuri* hitzek kolorea adierazten dute.

Garai bateko artzainek ere *harri urdina* erabiltzen zuten ardi hankamina sendatzeko. Eta harri haren kolorea, noski, argi zuriaren espektroko 5garren tokian dagoena da.

Hamabigarrenik. Txorien koloreak. Hor dauzkagu, txantxangorri, kaxkabeltza, txolarrea (txoria + arrea) eta beste, eta izen horietan guztietan **gorri**, **beltz** eta **arre** hitzek kolorea adierazten dute. Esaldi zaharrak ere hala dio: *zozoak beleari ipurbeltz*. Eta beltz hori, jakina, kolorea da. Ba, era berean Urumea erreka *hablante nativo* jendeak (hernaniarrak, ereñotzuarrak...) *kaxkourdina* deitzen diote *Cyanistes caeruleus* txori txikiari. Batuan, *amilotxa*. Ikus hurrengo irudia (*irudia 4*); bistan da *urdin* hori argi zuriaren espektroko 5garren tokian dagoena dela:



Irudia 4 - kaxkourdiña

Hamahirugarrenik. Begien koloreak. Olentzeroren begi gorriak, ziur aski, ez dira hitzez hitz hartu behar, zeren eta hitz egiteko modu sinboliko bat izan baitaiteke, suarekin eta eguna berritzearekin gehiago zer ikusia duena, eta ez begien kolorearekin.

Baina, bestelako kasuetan, *hablante nativo* jendeak bereizi ohi ditu kolore ezberdinetako begiak: begi-beltz, begi-argi... Baita *urdin* ere. Ikusi bestela adibidea (Mugica 1987):

Ojos azules: beturdin”

Gainera, kasu horretan, bi hitzekin (begi eta urdin) beste hitz berri bat sortu du *hablante nativo* jendeak. esan nahi baita, baditugula nahikoa motibo, hitz zaharra dela pentsatzeko.

Hamalagarrenik. Tonalitateak. Koloreetan, bakoitzak bere tonalitateak ditu. Ikus dezagun, beraz, ea *hablante nativo* jendea gauza izan den urdin kolorearen barruan tonalitate ezberdinak bereizteko.

ESKIROLAKIDEAK: UR-BEGIAK. Berreun mota baño geiagok darabiltzките dilin-dalan bere **urdin goxozko** kanpaitxoak zelaietan; zuriak eta gorrixtak ere izan oi-dira. (Ansorena 1968)

Azul-palido : **ubel-urdin**; azul-oscuro: **urdin-ilun** (Mugica 1987)

Hamabosgarrenik. Zeru, itsaso, ostadar, landare, harri, txori, begi eta beste (jarraitu genezakeen adibide gehiago jarritz) koloredunak izan dira, pertsona munduratu zenez geroztik. Eta kolore horiek bereizteko Azkue, Mujika, Mokoroa, Ansorena, Dorronsoro eta Lekuona bezalako *hablante nativo* jendeak *urdin* hitza erabili ohi du argi zuriaren espektroko 5garren kolorea izendatzeko. Entziklopedietan ere hala erabili dute, eta hala erabiltzen dute.

Gauzak horrela, guztiz zentzuzkoa da, euskal hiztegietan, *urdin* hitzaren lehen sarreran *azul* kolorea azaltzea, horixe delako sarrien izan ohi duen esanahia.

Beraz, ez da egia osoa Lakarra jaunaren proposizio hau: “ningún hablante nativo desconoce todavía hoy que urdin no equivale a **azul**”.

Egia osora hurbiltzeko, oso bestelako azalpena idatzi beharko litzateke. Adibidez, honelatsu: “todo hablante nativo sabe que **urdin**, además de equivaler al color azul que ocupa el quinto lugar en el espectro luminoso, incluye otros significados”.

Hamaseigarrenik. Zer kolore dute izarrek, *hablante nativo* jendearentzat? Oso bidezko galdera da. Ikusi, bestela, zer dakarren Lakarra jaunaren azalpenak: “¿qué pintaban en Veleia las **estrellas azules** de Rubén Darío y otros modernistas?”. Honatx, *hablante nativo* jendearen adibideak (Dorronsoro 1970):

Margoz, izar oztuak, gorri-illunak dira; bitartekoak oriak, eta beroenak zuri edo zuri-**urdinak**

Hamazazpigarrenik. Zer kolore du izartegiak, bere osoan harturik? Aurreko adibidean, izarrek bakarka ikusi ditugu. Ikus dezagun orain zer kolore nagusitzen den, gaugiro garbia denean, bat ere hodeirik gabea, alegia (Ansorena 1968).

Zeru, itsaso eta gau **izartsua** baño **urdiño**ago dan errostak onela itz egin zidan: "gordean daukat..."

Hemezortzigarrenik. Zer da **gaurdin**? Hitz egin beza *hablante nativo* jendeak.

Diccionario Retana de Autoridades del Euskera (Gran Enciclopedia Vasca 1976):

gaurdin: (B-ar-d, G-iz) Cielo raso, **estrellado**. (de *gau* + *urdin*)

Elhuyar Hiztegia (Elhuyar 1966):

gaurdin : noche despejada, noche con el cielo raso, **noche estrellada**.

Labayru Hiztegia (Labayru Fundazioa 2015):

gaurdin: cielo raso, cielo **estrellado**. Gaurdin dago, izarratua; bihar ere eguraldi aparta.

Placido Mugica. Diccionario Castellano-Vasco (Mugica 1987)

Cielo azul, **estrellado**: **gaurdin** (B, G).

R.M. Azkue lehen euskaltzainburuaren hiztegia (Azkue 1969):

gaurdin: (B-ar-d, G-iz), cielo raso, **estrellado**: ciel pur, étoilé. (de GAU + URDIN)

Euskaltzaindiaren Orotariko Hiztegia (Euskaltzaindia)

gaurdin: *cielo raso*.

Jakina, *raso* hitzak esan nahi du *despejado, sin nubes* (ikus Maria Moliner, Diccionario de Uso del Español). Ba, gaua garbia bada (hodeirik gabea) izarratua izango da, nahita ez.

Hortaz, izarretan nagusiki agertzen den kolorea urdina da. Galdera da: inork sinetsi lezake (unetxo batez, bederen), Lakarra jauna bezalako filologo batek ez duela *gaurdin* hitza ezagutzen?

Hemeretzigarrenik. Zer kolore dute izarrek, Lizardi poetarentzat? Hemen ere, oso bidezko galdera da, Lakarra jaunaren azalpenean poetak ere bai baitatoz: *Rubén Darío y otros modernistas*.

Honatz Lizardi poetaren bertsoak (Lizardi 1983):

Aren par gozoa!

Ustez, buru gaiñean

gaua dut, argia,

amaika **izar urdiñen**
dirdirak yosia...

Poetak poeta, zergatik dator Lakarra Jaunaren azalpenean *Rubén Dario*, eta ez *Xabier Lizardi*? Akaso ez ditu ezagutzen Lizardiren bertso horiek?

Hogeigarrenik. Koldo Mitxelena eta Lizardi. Honatx, Mitxelenaren esaldi batzuk (Mitxelena 1988):

Eta norbait hautatu beharrean **Lizardi** hautatuko genuke askok, inori ezer kendu gabe, euskal lirikaren ezaugarritzat. Uste baino gehiago zor diogu **Lizardiri**. Berak jantzi eta biztu digu, aurrenik, euskal lurraldea. Edertasun berriz estali digula esango al dugu, edota gordean zegoen edertasuna idoro eta agerrarazi duela? Dena dela, inguruan izango ditugu aurrerantzean hark biztu zituen itxura xotilak: Udaberri neskatxa, **urdinez** jantzia...

Alegia, Lizardik berak asmatu zituen *izar urdinak*, bere aburuz? Ala *hablante nativo* jendeak gordean zeukan kontzeptu bat aurkitu eta agerrarazi zuen?

Izanez ere, Lizardi poetaren *hamaika izar urdin* horiek, eta, *gaurdin* ez al dira gauza bera? Egingo nuke, baiezkoan, asko gaudela. Izanez ere, *hamaika izar urdinen...* puntu horren aurretik, beste puntu hau baitator: *gaua dut, argia*.

Izarrak izar, zalantzarik ez dagoena da, Mitxelena hizkuntzalariak ondotxo ezagutzen zituela Lizardi poetaren bertsoak, eta lana.

Hogeita batgarrenik. Koldo Mitxelena eta Joseba Andoni Lakarra. Pentsatu daiteke, lotsa handirik gabe, Lakarra jaunak derrigorrez ezagutzen dituela Mitxelena hizkuntzalariak Lizardi poetari buruz esandakoak (ikus; *Euskal idazlan guztiak II, Liburuak I*), zeren eta liburu horren sarrera Joseba Andoni Lakarra jaunak egin baita.

Beraz, nahikoa motibo badugu pentsatzeko, Lakarra jaunaren azalpenean dauden gabeziak ez direla uste gabeko lapsusak.

Hogeita bigarrenik. Domingo Agirre ondarrutarraren *Garoa* liburua. Lakarra jaunaren azalpenean *urdin* hitzak dituen bestelako esanahiak, *Garoa* liburuko pasarte honetan aurki ditzakegu, adibide gisa (Agirre 1966):

Gaur ere sartuko dute urdallean pitxar bat gutxienez, ta goizaldea etorriko da oiek etxera orduko, buruak **urdiñak** dauzkate baña. Aizazu beste ulerkera batean bai **urdintasun** ugari dagoala ementxe. Txapela **urdina**, amilla **urdiña**, pipetako keia **urdina**, euritakoak **urdiñak**, **dana** da emen **urdiña**, alkandora, abarka edo abarketa izan ezik

Hogeita hirugarrenik. Domingo Agirre ondarrutarraren *Kresala* liburua. Testu-inguruaren arabera, bereizita datoz *urdina*, *zuria* eta *gorria*. Baita *berdea* ere. Kresala liburuan, sei pasartetan aipatzen da *berdea* kolore gisara, eta testu-inguru horietan ezin da argi zuriaren espektroko 5garren kolorearekin nahastu. Sei pasarte horietako bat, hauxe dugu (Agirre 1981):

Baña negua ia igaro zan, azkenetan ebillen ia, ta udabarri gozoak bere arpegi garbi ederra erakutsi gura eban. Luzatu zan eguna, **urdinu** zan **zeru** alde; eguzkia, geroago ta goizago, epeltasun bizigarri bategaz agertuten zan; Arranondo gañeko sagastiak eta Done Klararen zelaitxoia lorez jantzirik egozan; Errenteriako baserritarrak euren lur ondo narotuak **gari berdez** beterik pozarren ikusten zituen; Asterrika ta Gorozikako bide ondoetan txor txor ebiltzan zozo-birigarroak, sasirik sasi; Kortetako soloetan kardantxulo ta txindorrak, txepetxak eta txirriskilloak txio txioka; Zaldupe inguruan da Kurutzemendiko arizti ta gaztañadietan eskillasoak eta amilotxak, ostrorik ostro ta adarrik adar, guztiz biziro ta alai egiten zituen euren egaldi errez da ondo neurtuak; ibaiko urak, ujdoldietako loikeri guztiak bazterrera kendurik, garbi garbi erakusten ebien kolko barrua, euren ondo edo oe gañeko tresna zar, arrain galdu ta erretillu zati guztiak banan banan agertuteraño; besigutan erabilitako potin andirik geienak, atunetara baño len azpiak ondo garbitu ta pikekoipetsu edo karena barria emoteko legorrera jasota eukiezan; da nasa ondoan, azkenez, zirauna legezko saretxalopa edo treñeruak, me meiak eurak, lirain, leun da guztiz polito egiñak, (meiegiak eta politegiak eidora orainguak) **azpitik baltzez** da karel ondoan edo gañertzean lerro **urdin**, **zuri** edo **gorriz** apaindurik, antxobatarako pretaurik egozan.

Inork zalantzan jarriko balu zer kolore duten txalupek, karel ondoan edo gain ertzean, daramatzaten *urdin*, *zuri* edo *gorri* horiek, kostaldeko edozein herritara joan besterik ez du, eta arranplan txalupa pintaketan dagoen *hablante nativo* jendeari galdetu besterik ez du. Edo galde diezaiola Hondarribiko *hablante nativo* jendeari zer kolore duen Ama Guadalupekoa traineruak, edo Zarauzko *hablante nativo* jendeari zer kolore daukan Enbata traineruak.

Hogeita laugarrenik. Esana dugu arrantzaleentzat ez dela berdina, itsasoa *urdin* egon ala *berde*. Eta Domingo Agirre ondarrutarrarentzat ere ez. Hara zer dioen *Ekatxa* eta *Aterpen* kapituluetan (Agirre 1981):

Bildurgarrizkoa egoan Kantauriko itxasoa. Urलाñozko estalki andi bat jarri jakon gain alde guztian, beren itxura gaiztoko aserrea ezkutau nairik legez; betaurrerik onenakaz be, uraldera begira egozanak ia ezeben ezer ikusten; agiri zan itxaso apurra **berde baltzeran irakindua** egoan, da irakiñaren dardareak azal guztian atara eutsazan apar zuriak igarian ebiltzan itxas artz gizon jantzalleak zirudien. An barruan, lañoak eta bisutsak estaldurik eukazan ur gazi zabaletan, gauza arrigarriren batzuk gertetan ziran, baga ta olatuen orruak ziñoenez (Kresala, *Ekatxa*)

Etorri zan barriro negu baltza, ta beragaz batera agertu ziran iparraldeko aize otz da meiak gizadi zar aulduai azurretarañoiko ikarea sartuaz; Kurutzemendik laño txapela jantzi eban; Arno ta Oiz sendoai buruak zuritu jakoezan edurrez; Kantauriako ur ugariak **berde illunez** jantzirik egozan; baga indartsuak arkaitz gogorraz burruka bizian ebiltzan egunero; kaio zuriak, eundaka, jira ta bira nekusan goizetik gabera Arranondoko ibai gañean; da potorrak, millaka ta millaka, sare lodi andi baten irudira, itxas-ate edo barra ondoan, uretan jarrita ikusten ziran noizean bein (Kresala, *Aterpen*)

Lakarra jaunaren azalpenaren arabera, *berde beltzeran* edo *ilun* jarri gabe *urdin* jarri beharko luke Domingo Agirre ondarrutarrak. Izanez ere, Lakarra jaunaren azalpenaren arabera *urdin* hitzak berdearen tonalitateak hartzen baititu.

Hogeita bosgarrenik. Lizardi poetarentzat ere ez da berdina itsasoa *irakindua* egon ala bare, koloreari dagokionez (Lizardi 1983):

Neskatxa da, ta **urdiñez**

Yantzita ziyoan.

Urdiña yazkia, ta

Begia areago:

Alakorik **Itsaso**

Barean ez dago.

Itsaso barea izan gabe, irakindua balitz *musker* kolorea erabiliko luke. Begira zer dioen *Bultzi-leiotik*-en (Lizardi 1983):

Arto **musker**,
Mendi, baserri zaarrak;
Ale gorriz
Abaildutako sagarrak

Alegia, Lizardi poetak ere bereizten zituen *urdin* eta *musker* (berde) koloreak. Harentzat *urdin* hitzak ez zuen berdearen tonalitaterik hartzen, ez bederen kasu hauetan: *zeru urdina*, *begi urdina*, eta itsaso barea ere *urdina*.

Hogeita seigarrenik. Pierre Lhande hiztegitileak ere bereizten zituen *urdina* (*bleu*) eta *muskerra* (*vert*). Esan nahi baita *muskerra* hitza, berdea adierazteko, ez dela poeta baten asmakizuna. Hiztegitileek, normalean, lehendik datorren hitza jasotzen baitute. Iruña-Veleiako *hablante nativo* jendeak *muskerra* hitza erabiltzen zuenik ez dakigu, baina ez daukagu zertan pentsaturik bi kolore horiek bereizten ez zituenik, non eta Agirre ondarrutarrak, Lizardi poetak eta Lhande hiztegitileak bereizi badituzte. Berdeari *berde* esango zioten, edo *musker* edo dena delakoa. Alegia, *urdin* hitzak ez zeukan zertan harturik berdearen tonalitaterik.

Hogeita zazpigarrenik. Ez soilik *urdin* hitzak, gainerako hitzek ere esanahi bat baino gehiago dute. Adibidez, *Kresala* liburuan bertan beste pasarte bat dator, aurrekoaren segidan, non *gorri* hitza ez den kolorea, baizik eta antxoa taldea. Honatx pasartea:

Garizumako egunak zirean, antxobatarako ta txarteletarako egunak. **Antxoba talde ugaria urgañean ikusita**, itxasora begira dabiltzanak *gorria! gorria!* deituten dabenean, Arranondoko saretxalopok arraña dagoan tokira eruatzen dabenean abiadea ta aparra benetan izaten da begiragarritzkoa.

Alegia, kostaldeko hainbat herritan, **arrain txiki taldea**, antxoa, parrotxa, eta abar = **gorria**. Eta herri horietan ere **arrain beltza** deitzen diote ez kolorez beltza den arrainari, baizik eta ezkatarik edo azalik izan gabe, larrua duen arraiari: dela marrazo, dela katu arraina, dela...

Jakina, Lakarra jaunak badaki zer nolako garrantzia duen testuinguruak. Orduan, zergatik ez da behin ere aipatzen testuingurua, haren azalpenean?

Hogeita zortzigarrenik. Legeak ere aitortzen du testuinguruaren garrantzia. Irakurri bestela zer dioen *Codigo Civil* araudiak.

Las normas se interpretarán según el sentido propio de sus palabras, **en relación con el contexto**, los antecedentes históricos y legislativos y la realidad social del tiempo en que han de ser aplicadas, atendiendo fundamentalmente al espíritu y finalidad de aquéllas

Hogeita bederatzigarrenik. Zer testuinguru du *Vrdin X Isar* grafitoak? Gakoa **X** horretan datza, ziur aski. Gure herrietako elizetan, **Kristo** da fededunen ispilu eta izar. Baina, euskaraz Kristo izenez ezagutzen dugun pertsona historikoa, Greziako hizkuntzan zen:

ΧΡΙΣΤΟΣ

Beraz, grafitoko **X** hori izan liteke **ΧΡΙΣΤΟΣ** hitzaren lehen hizkia. Alegia, **X** hori izan daiteke Kristoren laburdura bat, edo sinboloetako bat.

Hogeita hamargarrenik. Zergatik diogu **X** hori izan daitekeela Kristoren sinboloetako bat? Esan dezagun, kristau sinbologian badela anagrama bat, **CRISMON** izenekoa (ikusi *irudia 5*) Erdi Aroan guztiz zabaldua zegoena, Nafarroako erreinuan, batez ere. Are gehiago, **CRISMON** anagramen artean bada bat, **CRISMON navarro** izenekoa, bere ezaugarri propioekin.

Eta, hasiera batean, anagrama hori osatzen zuten bi hizkiok: **X** eta **P**. Alegia, **ΧΡΙΣΤΟΣ** izenaren lehen bi hizkiak.

Gero, beste hizki batzuk ere izango ziren **ΧΡΙΣΤΟΣ** sinboloaren osagarri: **I** (**ΧΡΙΣΤΟΣ** izenaren hirugarren hizkia); **A** (**Alfa**, gauza guztien hasiera), **W** (**Omega**, gauza guztien amaiera), eta abar. Eta denak ere zirkulu baten barruan: perfekzioa adierazten baitu zirkuluak.



Irudia 5 – Crismon-a

Hogeita hamaikagarrenik: 2015eko azaroan, Donostiako San Telmo museoak, **Crismon** bat zahar berritu zuen (gaur egun ikusgai dago museo hartan). **Crismon** hori XIIgarren mendekoa omen da, Bastida herrian aurkitua (gaur egun Arabako Errioxan kokatua, eta garai batean *La Sonsierra Navarra* eskualdean). Esan dezagun Bastida eta Iruña Veleia bitartean ez dagoela egun bateko bidea, oinez joanda.

Hogeita hamabigarrenik. *Kristologia* da teologiaren zati bat, Kristoren pertsona ikertzen duena. Badira zenbait *kristologo*, honako hipotesi honen aldekoak: **CRISMON** anagrama azaldu aurretik, agertu zen X hutsa, besterik gabe, Kristoren sinbolo gisa.

Hogeita hamahirugarrenik: Beraz, kristologo horien hipotesiaren arabera, grafito hori da museo batean gorde beharko litzatekeen harri bitxia, ondare baliotsua, altxorra... .

Hogeita hamalagarrenik. Beste grafito batzuetan ere azaltzen dira kristauen mezuak, Esan nahi baita, *Vrdin X Isar* grafitoko testuingurua, kristaua izan daitekeela, ziur aski.

Hogeita hamabosgarrenik. Lakarra jaunaren azalpenean testuinguru hitza azaldu ere egiten ez denez, lotsa handirik gabe esan dezagun azalpen horrek ez duela funts handirik.

Hogeita hamaseigarrenik. Egungo bertsio ofizialak dio kristautasuna oso berandu iritsi zela Euskal Herrira. Baina, X simple horrek hautsi dezake egungo bertsio ofiziala.

Hogeita hamazazpigarrenik. Zer gertatzen ari da Iruña Veleiako nobela beltz honetan? Ba, grafito batek egungo teoria ofiziala zalantzan jartzen badu, ez dela teoria hori

zalantzan jartzen, baizik eta grafitoa jotzen dela faltsutzat. Eta jokaera hori ez da gertatzen grafito batekin edo bestekin, baizik eta gehienekin (guztiek ez esatearren). Alegia, 400 grafitoekin. Atzerago azalduko dugu mundu mailako autoritate bat, jokaera hori gaitzetsi zuena.

Hogeita hemezortzigarrenik. Zer da *izarra*, *hablante nativo* jendearentzat? Badakigu izarrak zer diren zerura begiratzen dugunean. Baina *izar* hitzak ere badu beste esanahirik, *hablante nativo* jendearen hizkera metaforikoan. Hara zen dioen Azkuek *Euskalerraren Yakintzan* (Azkue *apud* Euskaltzaindia):

Nire biotzeko **izarra**, ni naite bertzeek bearra

Edo irakurri, bestela Moco-roa (Moco-roa 1990):

Non da an niretzat argi egiten eban **izar** bizia (emazte zana). La brillante estrella que...

Nire **izar** ederra, nire begi-ur-din. Tiernos epítetos que dan las madres a sus criaturas

Zure bozarekin, **izar** aingerua ez dezaket erran zer sentitzen dutan! ¡Oh, angel mio!

Lur pitin artan zegoen **izar** neria... en aquel pañuelito de tierra estaba enterado mi **chiquitin**

Mutiko **izar** bat dute, jaiorik. **Precioso** niño

Alegia, testuinguruaren arabera, afektibitatearekin ere badu zerikusirik izarrak. Posibilitate horri erreparatuz gero, Iruña-Veleiako *isar* horrek ez dauka zertan izanik unibertsoko astro bat.

Hogeita hemeretzigarrenik. Kristautasuna eta izarrak. Afektibitatearen ildo beretik, erlazionatu ditu euskal kristautasunak pertsonaia erlijiosoak eta izarrak? Kristoren amaren kasuan bai, behintzat (Orixe *apud* Moco-roa 1990):

Baleari arpoia zorrotz sartzean Itsasoko **Izar** Maria zuten agotan, eta batipat biotzean

Denok dakigu izartegian ez dela izar bat izen horrekin; alegia *Itsasoko Izar Maria*. Gainera, Orixe idazleari sinesten badiogu, ez ziren gutxi izar horretan sinesten zuten *hablante nativoak*. Domingo Agirre ondarrutarrak ere identifikatzen du Ama Maria izar batekin (Agirre 1981):

Arranondotarrak, mendi gañean, errira begira daukie, erriaren zaintzalea data, **Ama Mariaren** irudi eder bat, baseliza polit politean ondo gordeta. Guztiz da maitegarria ta oso dabie maite arrantzaleak: bera da euren **artizarra**, euren itxaropen, argi ta poza, euren biotzeko Ama Kutuna

Jakina, konparazio bat da, edo zehatzago esateko metafora: Ama Maria = artizarra. Eta zergatik ez da izango Iruña-Veleiakoa ere metafora bat? Kristo = izarra.

Berrogeigarrenik. Kristo eta artizarra. Maria pertsonaiaren kasuan bai; baina Kristo pertsonaia identifikatu dute kristauak izarren batekin? Eta erantzuna daukagu Biblian, Itun Berrian, Apokalipsi liburuan (Elizen Arteko Biblia 2008):

Nik, Jesusek, neure aingerua bidali dut eliz elkarteei mezu hau ematera. Neu naiz Daviden kimua eta jatorria, neu goizeko **izar** distiratsua

Munduko kristauen artean, goizeko izar distiratsu hori, gehientzat da *Artizarra* (eta hala dator egundo euskal biblian); baina, beste askorentzat *Sirio*.

Iruña-Veleiako kristauentzat zer izar zen, ez dakigu, noski.

Berrogeita batgarrenik. Zer da kolorea? Ikus dezagun zer dioen Harluxet hiztegi Entziklopediak:

kolore. Uhin-luzera jakineko uhin elektromagnetikoei **begian** sortzen duten **sentsazioa**.

Beraz, motxean esanda, kolore guztiak dira **sentsazio** bat, argiak pertsonen begian sortzen duena (hainbat animaliatan, adibidez, bestelako sentsazio bat sortzen du). Eta argiak pertsonetan sortzen duen sentsazio bat denez, batzuentzat Arrano **beltza** dena, Txirrita bezalako Ereñotzuko *hablante nativoentzat* arrano hori, **gorria** da:

Andre gazte bat miserabilia
ahuntz kontura etorriya
umia zeukan sihaskatxuan
zarpa tartian jarriya
Urdaburutik sartu zitzayon
tranpan arrano **gorriya**
harrapatuta eraman ziyon
ai hura haren larriya
orain hargatik deitzen diyogu
“Haurra galdu zan harriya”.

Iruña-Veleiako *hablante nativo* jendearen begian, zer sentsazio sortu zuten Artizar edo Sirio izarrek ez dakigu. Baina, Lizardi poetari irakurri eta gero, edo *gaurdin* hitzaren esanahiari erreparatuz gero, bat ere harritu ez, sentsazio hori urdin kolorearena izatea.

Berrogeita bigarrenik. Iruña-Veleiako grafitoak idatzi dituztenak elebidunak dira. Ezin izan bestela. Adibidez, armeniarrek bere grafia propioa daukate:

. Ճանապարհին մի գայլ պատսուհեց.

Orduan, armeniarretan posible du elebakar batek idazteko gai izatea. Baina, horrelakorik ezin liteke gertatu euskaldunen artean, grafia propiorik ez dugulako. Iruña-Veleiako euskaldunen artean ez, behintzat.

Berrogeita hirugarrenik. Zein zen grafito egileen ama hizkuntza? Grafitoetan euskara, latina eta beste hizkuntza batzuk ere azaltzen direnez, egilearen ama hizkuntza izan daiteke euskara ala latina, ala... Ez dezagun ahaztu Iruña-Veleiatik igarotzen zela erromatarren galtzada garrantzitsuenetakoa, *Bordele* eta *Astorga* lotzen zituena. Esan nahi baita grafitoen idazleak kultura anitza zuela, batetik elebidun zelako, eta bestetik komunikabide garrantzitsu batek igarotzen zuen hiri handi batekoa zelako. Eta horrek biderkatu egiten ditu *urdin isar* hitzek izan ditzaketen esanahiak.

Berrogeita laugarrenik. Urdin kolorea hebreeraz. Erljio guztietako jainkoa beti da perfekzioz betea. Ba, hebreeraz **urdin** kolorea da: *tekheleth*. Eta hitz horren jatorria beste hau da: **kahlah**. Beraz, agian, grafitoko *urdin* hitzak adieraziko luke perfekzioa, jainkoari

dagokionez. Hipotesi horren alde beste datu batek ere jokatzen du. Kristoren ikonografian, bai Kristo bera, bai Maria eta bai apostoluak agertzen dira **urdin** jantziak.

Gogoratu dezagun, grafito idazlea elebiduna dela, kultura anitzekoa alegia, eta ikonografia horren berri izan zezakeela.

Berrogeita bosgarrenik. Seguru al gaude grafitoan *vrđin* jartzen duela? Grafitoari adi-adi erreparatzen badiogu, ezin da ukatu azken hizkia N garbia ez dela. Hots: N garbiak hiru marra baditu, grafitoko azken hizki horrek lau ditu.

Nire inguruko *hablante nativo* baten hipotesia da azken hizki horretan bi hizki daudela bata bestearen gainean. Ez litzateke izango lehen aldia horrelako zerbait gertatzen dena. Adibidez, crison anagrama gehienetan X eta P bata bestearen gainean agertzen dira.

Nire inguruko lagunaren ustez, bat egiten duten bi hizki horiek izango lirateke N eta A. Eta orduan hitz osoa ez litzateke *vrđin* (urdin) izango, baizik eta *vrđian* (urdian). Eta esaldi osoa: *vrđian isar = zeruan izar*.

Nire lagun hurkoaren hipotesi hori egiaztatuko balitz, paralelismo hau izango genuke: Maria, Itsasoko izar, eta haren seme Kristo, zeruko izar. Hipotesi bat besterik ez da, baina hori ere hor dago.

Berrogeita seigarrenik. Hitzen ordena. Gaur egun ordena hau erabiltzen dugu: **mendi handia**. Alegia, izena + adjektiboa. Baina, alderantzizko adibide zaharrak ere baditugu:

Aundimendi (**aundi** + mendi): Sakanako mendia).

Gorramendi (**gorri** + mendi): Nafarroako mendia.

Gorraitz (**gorri** + haitz): Nafarroako mendia.

Txuriaitz (**txuri** + haitz): Gipuzkoan, Arno mendikatean

Pentsatu liteke, beraz, hori izan zitekeela antzinako hitzen ordena: adjektiboa + izena.

Berrogeita zazpigarrenik. Gauza da, *urđin* adjektiboaren kasu konkretuan, are gehiagotan azaltzen dela *urđin* izenaren aurretik:

Urdin-sagar (sagar mota bat).

Urdin-perretxiko (perretxiko mota bat).

Urdinarri (Nafarroan, Esteribarren)

Urdiñarbe (Zuberoan).

Urdintxulo (Nafarroan, Undiano herrian).

Kantu ederrez betetzen dire **urdin** zeruak (Joanes Etxeberri, 1627)

Beraz, ez da hain harrigarria, Iruña-Veleian ere, **urdin-izar** agertzea; eta ez **izar-urdin**, bertsio ofizialeko zenbaitek hala agertu beharko lukeela dioten arren.

Berrogeita zortzigarrenik. Eliseo Gil antropologoak ez du euskaraz egiten. Orduan, guztiz zalantzazkoa da pentsatzea *urdin isar* idazteko gauza izan zitekeenik. Izanez ere, ez baitu euskara zaharraren arrastorik ere; eta, erdalduna den aldetik, ez baitu beste joskerarik ezagutzen. Alegia, *estrella azul* eta ez *azul estrella*.

Beraz, zalantzan jartzekoa da Eliseo Gil arkeologoak grafito hori faltsifikatu zuelako akusazioa. Gogora dezagun, zalantzaren onurak akusatuaren alde jokatu ohi duela zuzenbidezko estatu batean. Aldiz, bertsio ofizialeko hainbatek, kontrara jokatu dutela-ta, gaude.

Berrogeita bederatzigarrenik. Zergatik diogu Lakarra jaunaren azalpena nahasia dela? Ikus dezagun berriro azalpena (Lakarra 2008):

La cuestión de *urdin* es aún más clamorosa: ningún hablante nativo desconoce todavía hoy que *urdin* no equivale a azul -aparte de que¿qué pintaban en Veleia las estrellas azules de Rubén Darío y otros modernistas?- sino, más bien, a una serie de tonalidades que incluye gamas (pero no el conjunto) de azules, verdes, marrones, grises y blancos. Es más: todavía hoy *urdin* no es solo una sensación visual sino también olfativa o gustativa, aplicable, p.e., a alimentos y texturas.

Aztertu dezagun azalpena, zatiz zati. *Real Academia Española* erakundearen hiztegiaren arabera, *más bien* lokuzioren esanahia hauxe da (Real Academia de la lengua 2017):

Más bien, 1.en contraposición de dos términos para acompañar al que se considera más adecuado, sin serlo por completo. No estoy alegre, sino más bien triste. Una figura más bien apolínea que hercúlea”.

Beraz, Lakarra jaunaren arabera kontrajarrita daude, batetik, *azul*, eta bestetik, *urdin* hitzak dituen esanahi guztiak. Ba, ez dago kontrajarpenik, esanahi desberdin horiek testuinguruaren arabekoak direlako, artikulua honetako hainbat adibidetan erakutsi dugun legez.

Lakarra jaunaren azalpenean, kontrajarrita daude *urdin* eta *urdin* kolorearen tonalitateak. Kolore guztiek dituzte bakoitzak bere tonalitateak, bere kolore horren izateari utzi gabe. Eta *hablante nativo* jendeak badaki bereizten *urdin* kolorearen barruan, kolore horren tonalitate ezberdina, artikulua honen adibideetan erakutsi dugun legez.

Bestetik *Real Academia Española* erakundearen arabera, *más bien* esamoldeak **egokiago** den terminoari lagundu egiten dio, baina termino horren esanahi osoa ez du hartzen: *No estoy alegre, sino más bien triste*. Alegia, ez dago erabat triste.

Beraz, *urdin* ez da (erabat) tonalitate edo gama bat ere, baizik eta halako zerbait. Berrero ere anbiguotasunean mugitzen da, azalpena.

Eta, nola ulertu behar dira esaldi horretako “tonalidades”; “gamas” eta “conjunto”? : Ikus dezagun zer dioen *Real Academia Española* erakundeak (*Real Academia de la lengua* 2017):

Conjunto. Totalidad de los elementos o cosas poseedores de una propiedad común, que los distingue de otros; por ejemplo los números pares.

Hitz horiek direla medio, berrero ere Lakarra jaunaren esaldi hori anbiguotasunean mugitzen da. Azalpenaren bukaerak ere merezi du zerbait esatea: “Es más: todavía hoy *urdin* no es solo una sensación visual sino también olfativa o gustativa, aplicable, p.e., a alimentos y texturas”

Esana dugu kolorea zer den: begietan argiak sortzen duen sentsazioa. Eta "no **solo** es una sensación (color)". Hortaz, esaldi horrek esan nahi du *urdin* hitza, kolorea ere badela. Eta *sino también* hitzek esan nahi dute, koloreaz gain beste sentsazio batzuk ere hartzen dituela *urdin* hitzak. Berrero ere, azalpenak nahasi egiten ditu testuinguru ezberdineko esanahiak.

Berrogeita hamargarrenik. Lakarra jaunaren kontraesana. Orain, Lakarra jaunak motibo gehiago izan beharko lituzke **urdin** = **azul** onartzeko. Izanez ere bere hitzetan, *urdin* hitzak hainbat **tonalitate** eta **gama** hartzen baditu, arrazoi handiagoz onartu beharko luke grafitoak dioena. Honatx, Lakarra jaunaren azalpenean datorren kontraesana: “(...) *urdin* no

equivale a **azul** sino, más bien, a una serie de **tonalidades** que incluye **gamas** (pero no el conjunto) de **azules, verdes, marrones, grises y blancos**". Alegia, Lakarra jaunaren azalpenaren arabera, Iruña-Veleiako *hablante nativoek*, bere begietan izarren argiak sortu zuen sentsazioa edozein izanda ere, *urdin* hitza erabili zutelako posibilitateak biderkatu egiten dira. Halako kontraesan nabarmena duen teoria batek ezin du zutik iraun.

Berrogeita hamaikagarrenik. Lakarra jaunaren argudio-estrategia. Kontzeptuak testuinguruaren arabera berezi eta zehaztu beharrean, nahastu egin ditu, honelako hizkuntza partikulak direla medio: "sino más bien..."; "no es solo, sino también...".

Ikusi, adibidez, zer alde dagoen Lakarra jaunaren azalpena irakurri edo *Harluxet hiztegi entziklopedikoa* irakurri, *urdin* hitza dela-ta (Harluxet 1998):

Urdin:

Izena. *Argi zuriaren espektroko bosgarren kolorea, berdearen eta morearen artekoa.*

Izenondoa. *Delako kolorea duena.*

Izenondoa. *Ileaz mintzatuz, kolorea galtzen hasia baina erabat zuritu gabea.*

Izenondoa. *Larruazalaz mintzatuz, zuria, fina.*

Izenondoa. *Zezenez mintzatuz, beltza eta zuria dena.*

Izena. *Lizuna, hauts-itxurako azal zuri-grisaxka.*

Zer pentsatu behar dugu? Lakarra jaunak ez dakiela hiztegiak bezain zehatz idazten? (Kopiatu besterik ez zeukan, azken finean). Hiztegiak hiztegi, eta azalpenak azalpen, kontua da ez dituela kontzeptuak bereizi (nahita ala nahi gabe). Eta hori halako lana egiteko eredu bazuelarik.

Berrogeita hamabigarrenik. Kontzeptuak nahastu eta pilatzeko estrategia hori, ez da egokiena, inondik ere, eztabaida zientifikoa sakontzeko, Perelman filosofoak *Tratado de la argumentación* liburuan dioenaren arabera (Perelman 2000)

Gainera, *Pierre Oleron* irakasleak harago jotzen du. Hark dioenez, argudio-estrategia hori erabili ohi da, jendea berotzeko, pertsona edo erakunde baten alde edo kontra. Ederki azaltzen du hori *L'argumentation* liburuan, *Que sais-je?* atalean (Oléron 1983)

Ikusirik, zer tonu erabiltzen duen Lakarra jaunak ("... es aún más clamorosa; ¿qué pintaban...?"), pentsatu liteke kasu honetan ere kontzeptuak nahastu eta pilatzeko

estrategiaren helburu hori ere jendea berotzea zela (arkeologoen kontra), eta ez eztabaida sakontzea.

Gainera, Umberto Eco batentzat, idazkera korapilotsu hori ez da eredugarria, adibidez, tesi bat idazteko.

Berrogeita hamahirugarrenik. Martin Almagro Gorbea, “Real Academia de la Historia” erakundeko kidea.

Historialari horren arabera, Iruña-Veleiako grafitoak dira Europa osoan egin den “estafa” handiena, euskal gizartea engainatzeko. Eta, beti ere, historialari horren esanetan, Iruña-Veleiaren aldekoen lana da, azken finean, euskal nazionalismoaren helburu politikoei indar ematea.

Ba, Historiaren ironia dela medio, gertatu dena da (gertatu, diogu), Eliseo Gil eta Idoia Filloy arkeologoak kontratatu zituela PP alderdiak agintzen zuen Foru Aldundiak, eta, kalegorrira, berriz, “nazionalista/abertzale” koalizio batek bidali duela Eliseo Gilen taldea.

Gaur egun ere, ezin esan nazionalismoa, oro har, bat eginda dagoenik Eliseo Gil eta Idoia Filloy arkeologoen alde.

Eta, *Hemeroteka Madarikatuan* konparatu besterik ez dago, euskal medioek ere zer nolako oihartzuna eskaini dioten bertsio ofizialari eta zein gutxi arkeologoen aldeko bertsioari.

Almagro Gorbearen arabera, euskal historialariek herria engainatu, besterik ez dute egiten, eta bere burua baizik ez da egiaren jabe, antzinako euskal historiaren kontuan.

Historialari horren “egia” da Iruña-Veleia, “zeltiberoa” zela (ezbairik gabe), eta, hortaz, euskara Iruña-Veleian agertu izana, “estafa” handi baten seinale nabarmena dela. Historialari horren (eta zenbait filologoren arabera) euskara berandu zabaldu baitzen hiru probintzietan: Iruña-Veleiako garaia baino beranduago.

Almagro Gorbea jaunak bere akusazioa *Real Sociedad Bascongada de Amigos del Pais* erakundean bota zuen, elkarte hartan “amigo” gisa sartzeko hitzaldian, 2008garren urtean; eta, oihartzun handiko medioek, lau haizetara zabalduko zuten akusazioa: “los hallazgos de Iruña Veleia o son una broma o una estafa”.

Gero, etorriko ziren Gorrotxategi eta Lakarra jaunen txostenak. Eta, jakina, Almagro Gorbearen akusazioari, are eta haize gehiago emango zioten euskal filologoen txostenek. Almagro Gorbea “historialariak” duen itzal handia dela-ta, galdera da: Eliseo Gil eta Idoia Filloy arkeologoen kontra hark sortu zuen presioak ea eraginik izan zuen Gorrotxategi eta Lakarra filologoen txostenetan.

Gure ustez, ziur aski, eraginen bat sortuko zukeen, arkeologoen kalterako; bestela, zail da ulertzen Lakarra jaunaren azalpenak dituen hainbat gabezi.

Berrogeita hamalagarrenik. Almagro Gorbea eta Italo Calvino. Honatx pasarte bat, Italo Calvino idazle italiarrarena (beltzean jartzearena gurea da) (Calvino 1995):

Hace tiempo que nos hemos dado cuenta: el almacén de los materiales acumulados por la humanidad –mecanismos, maquinarias, mercancías, mercados, instituciones, documentos, poemas, emblemas, fotogramas, *opera picta*, artes y oficios, enciclopedias, cosmologías, gramáticas, lugares y figuras del discurso, relaciones de parentela, de tribu y de empresa, mitos y ritos, modelos operacionales- ya no hay manera de mantenerlo en orden. Los **métodos**, continuamente rectificadas y puestos al día durante los últimos cuatrocientos años para establecer un lugar para cosa y cada cosa en su lugar (y apartar lo que queda)... se han **resquebrajado** demasiado y hacen en exceso agua como para seguir pretendiendo mantenerlo todo junto, como si nada.

Hitz bitan biltzeko, esan nahi duena da espekulazioan oinarritutako metodoek porrot egiten dutela (gero azalduko du zergatik).

Eta, Almagro Gorbea historialaria ez al da espekulazioan erori, Iruña-Veleia dela eta?

Berrogeita hamabosgarrenik. Espekulazioan oinarritutako metodo horiek porrot egin badute, zer proposatzen du Italo Calvino idazleak? Ba, arkeologoen metodoa. Irakurri, bestela, pasarte (Calvino 1995):

En su excavación el **arqueólogo** se encuentra con utensilios de los que ignora la función, trozos de cerámica que no encajan entre sí, yacimientos de otras eras distintas a las que se esperaba encontrar. Su tarea es la de describir, pieza por pieza, especialmente lo que no consigue redondear en una historia o en una costumbre, ni reconstruir en una continuidad o en un todo. A eso quizá se llegue más tarde; o quizá se comprenda que lo que dice todo lo que había que decir no es una motivación exterior a los objetos, sino el solo hecho de que objetos de tal y tal forma se encuentren en ese determinado lugar .

De la misma manera, **nosotros desearíamos** que nuestra tarea consistiera en **indicar** y **describir**, más que en **explicar**, porque si tenemos **demasiada prisa en dar una explicación** nuestro punto de partida volvería a ser el que no es ni siquiera un punto de

llegada, es decir, nosotros mismos: teleonomía vana gloriosa y desilusionante al mismo tiempo”

Badirudi Calvino idazleak, propio eta nahita, idatzi zuela pasarte hori Almagro Gorbeari berari zuzendua. Eta, Lakarra jaunaren azalpena ere, ez al da presaka egindako azalpen bat?

Berrogeita hamaseigarrenik. Estratigrafía arkeologikoa. Metodo horren funtsa da lur-geruzak edo lur-kapak (aurrerantzean *estratuak*) nola pilatzen diren ikertzea, arkeologiaren aldetik. Estratu bakoitza garai ezberdinekoa da (haitzetan *flihs* geruzatan gertatzen den bezala). Hortaz, segun eta zein estratutan topatzen dugun grafito bat, jakin dezakegu zein garaitakoa den grafito hori.

Estratigrafía arkeologikoaren metodoa 1970eko hamarkadan sortu zen, eta sortzailea da: **Edward Cecil Harris**. Planeta osoko arkeologoaren artean guztiz ezaguna da haren metodoa (*Harris* metodoa).

Ba, **Edward Cecil Harris** arkeologo berak esana da oso egoki eta zuzen eginga dagoela Eliseo Gil eta Idoia Filloy arkeologoek Iruña-Veleian egindako estratigrafia. Eta ez dela posible estratigrafiari tranpa egitea. Beraz, grafitoak benetakoak direla.

Eta, aldiz, zer egin dute bertsio ofizialekoek, Eliseo Gilen taldea kale-gorrira bidali eta gero? Ba, *katerpillar* pala sartu, eta estratu guztiak hankaz gora jarri. *Kartepillar* pala non sartuko, eta hain juxtu *vrđin X isar* agertu den tokian. Toki horretan indusketa egiten hasiak ziren, eta, beraz, estratu horietan zegoen informazioa galdu egin da betiko: ezin baita berreskuratu nola pilatuta zeuden estratu horiek.

Imajinatzen dugu zer kalapita sortuko litzatekeen mundu osoan, administrazio publikoren batek gauza bera egingo balu, Zumaia-Debako *flihs* bakar batekin?

Ba, Iruña-Veleiako txikizioak inor gutxi ikaratu du, gurean, Euskal Herrian (albisteetan eta medioetan apenas izan du oihartzunik). Eta oihartzun eza horrekin ere harrিতa daude mundu mailako hainbat ikerle, **Edward Cecil Harris** bera, adibidez; edo Roslyn M. Frank: "Kriminala da Iruña-Veleia bezalako indusketan eskabadora sartzea" (Hernaniko Kronikak egindako elkarrizketa).

Berrogeita hamazazpigarrenik. Altamira eta Iruña-Veleia. Altamirako leize-zuloak 1868 urtean aurkitu ziren. Eta hasieratik bertatik izugarritzko borroka sortu zen margoen inguruan: garai hartako paleontologorik ospetsuenak faltsuak zirela zioten. Paleontologo

horien argudiorik nagusia: garai hartako pertsonak ez zirela gai margo horiek egiteko, perfektuak zirelako. Fama handiko paleontologo haien izenak: **Émile Cartailhac** eta **Grabriel de Mortillet**.

Paleontologo horiez gain, Espainiako erakunde akademikoak ere faltsutzat jo zituen margoak. Erakunde horien izenak: *La Institución Libre de Enseñanza* eta *La Sociedad Española de Calcografía*.

Eta margoak aurkitu zituen, berriz, izan zen: *Marcelo Sanz de Sautuola*. Beraz, margoak faltsuak baziren, nor zen faltsifikatzailea? Ba, margoak aurkitu zituen: Alegia, *Marcelo Sanz de Sautuola*. Gizon hau 1888 urtean hil zen, eta artean ere ezin izan zuen bere izena garbitu. Faltsifikatzailea zelako akusazioak heriotzaraino jarraitu zion, fama handiko paleontologo eta erakunde akademiko horiek zirela medio. Jakina, Marcelo hil eta gero beste leize-zuloetan ere azaldu ziren antzeko margoak, eta orduan garbitu zen Marceloren izena. Beranduegi.

Berrogeita hemezortzigarrenik. Altamirak eta Iruña-Veleiak badute elkarren arteko antz handirik. Batetik, Iruña-Veleian ere Altamirako margoekin erabilitako argudio bera erabili dute bertsio ofizialekoek: “testu eta irudi horiek modernoak dira, ez da posible garai hartako pertsonaren batek eginak izatea”. Eta irudi eta testu horiek modernoak direla adierazteko analogia hau erabiltzen dute: “Zer gertatuko litzateke *Coca Cola* azalduko balitz grafito horietan, idatzita? Ba, antzeko zerbait gertatzen da grafitoetan azalduko hitz eta abarrekin”.

Bestetik, bai Altamirako eta bai Iruña-Veleiako kasuan, elkarrekiko sokatiran daude, alde batetik zientzia eta bestetik ideologia, espekulazioa...

Azkenik, Iruña-Veleiako kasuan ere akusatzaileek Altamiran egin zuten dedukzio bera egin dute: “Grafitoetan datozen testu, sinbolo eta irudiak modernoak badira, grafitoak aurkitu zituen da faltsifikatzailea: Eliseo Gil”. Eta hori ez da gertatzen grafito batekin bakarrik, baizik eta Eliseok aurkitutako grafito gehienekin (guztiek ez bada): 400 grafitoekin. Alegia, bertsio ofizialaren arabera, horietan guztietan azaltzen da *Coca Cola*. Bertsio ofizialaren arabera *Coca Cola soroa*, deitu beharko litzaioke paraje horri.

Berrogeita hemeretzigarrenik. *Coca Colaren* analogia entzunda, hobeto ulertzen dugu Joseba Lakarraren esaldia: “¿qué pintaban en Veleia las estrellas azules de Rubén Dario y otros **modernistas**?”. Gutxi falta zaio era honetan jarraitzeko: “casi tan modernos como la *Coca Cola*”.

Beraz, bertsio ofizialekoen analogiaren arabera, grafitoan *vrđin* azaltzea, *Coca Cola* azaltzearen parekoa litzateke. Eta *vrđin* gabe, *vrđian* edo antzeko zerbait jarriko balu ere, bai?. Eta grafitoan azaltzen den X hori ere *Coca Cola* edariaren sinboloa da?

Hirurogeigarrenik. Bertsio ofiziala kondenatuta dago porrot egitera. Altamirako kasuan, azkenean esperientziak gezurtatu zituen itzal handiko paleontologo haien teoria espekulatiboak. Iruña-Veleiaren kasuan ere, azkenean, batetik, esperientziak gezurtatuko ditu teoria espekulatibo guztiak (geurea barne); eta bestetik zientziak.

Ziur gaude, egunen batean (bihar ez bada etzi) agertuko dela *Coca Colaren* bat, baita Iruña-Veleiaz kanpo ere.

Izan ere 400 *Coca Cola*, *Coca Cola* asko baitira. Alegia, zenbaki horrekin biderkatu egiten dira *Coca Cola* bakarren bat (X bat edo) beste tokiren batean agertzeko.

Gainera, Iruña-Veleian aurkitutako grafitoen kontra, asko espekulatu baita (ikaragarri): kristautasuna berandu iritsi zela Euskal Herrira; euskara berandu iritsi zela Iruña-Veleiara; inoiz ere ez zela hitz egin euskaraz lurralde haietan. Eta abar. Eta hainbeste espekulatzeak arrisku hori dakar berekin: biderkatu egiten dela lehenago edo geroago porrot egiteko posibilitatea.

Hirurogeita batgarrenik. Zergatik azalduko dira *Coca Cola* gehiago? Hezetasunak galtzen ditu materialak, urteen poderioz. Baina, Euskal Herrian barrena, zenbat eta hegoalderago jo, orduan eta hezetasun gutxiago.

Adibidez, *Bilar* eta *Kripan* herrietako mugetan (Arabako Errioxan), *Sierra de Cantabria* mendian barrena, oso toki ezkutuan, aurkitu dituzte duela 6.000 urteko hezurrak: pertsonenak eta animalienak: ardiak, abereak eta beste. Baita, animaliak gordetzeko itxituren edo korten aztarnak ere. Europa osoan aurkitu diren aztarnarik zaharrenetakoak. Duela 6.000 urte, ez zen erromatarren inperiorik, ez zeltiberorik, ez Egiptoko inperiorik, ez idatzizko arrastorik... Orain, garbi dagoena da orduko pertsona haiek hitz egiteko gai zirela. Zer hizkuntzatan? Erromatarrena, zeltiberoena, edo egiptotarrena ez bederen.

Gainera, hezur batzuek hainbeste urte iraun izan badute, pentsa zer material aurkitu daitekeen, paraje haietan, hezurra baino gogorragoa, antzinako jendeak landutakoa, markaren bat, edo sinboloren bat grabatuta duela.

Beraz; inork ere ez daki zenbat sorpresa dauden ezkutatuta lurralde haietako lurpean. Baina, badakiguna da sorpresa horiek azaleratu ahala, argiak urratuko dituela espekulazioan oinarritutako teoria guztiak (geurea barne)

Hirurogeita bigarrenik. *Bilar* eta *Kripan* herrietako mugetatik abiatuz gero, egun eta erdiko bidea dago Iruña-Veleiaraino, oinez joanda. Gure ama Kripan herrikoa zen, eta nik hari entzunak dira hitz hauek:

otana (gaztelaniaz, *ogaza*); estoy de *aurzaino* ("haur zain nago" esateko); *cascarrina* (kazkabarra) la que mata la gallina; *zaborro* (gaztelaniaz, basura); Hay que cortar las vides por el tercer ojo (euskaraz begia; gaztelaniaz, yema); hemos de ir al *jo pelota* (gaztelaniaz, al fronton); mucho y bien la paloma vuela (ondo eta azkar, usoak hegan).

Hirurogeita hirugarrenik. Gero, gainera, hor dago zientzia. Gaur egun, zientzia kapaz da ile bat hartu eta duela 2.000 urteko ile horren jabearen ADN osoa ateratzeko. Gaur ez bada, bihar edo etzi zientziak egiaztatu edo gezurtatuko ditu Iruña-Veleiari buruzko teoria espekulatibo guztiak (geurea barne).

Hirurogeita laugarrenik. Lakarra jaunaren azalpenaren arabera, *urdin* hitza da *Coca Cola* superlatiboena ("la cuestión de urdin es aún más clamorosa"). Ba, *Coca Cola* hori nahiko hautsita edo pitzatua gelditu denez, arrazoi handiagoz hautsita gelditzen dira gainerako *Coca Cola* guztiak ere.

Hirurogeita bosgarrenik. Lakarra jauna eta Roslyn M. Frank. Hernaniko Kronikak egindako elkarrizketa batean, hara zer zioen Roslyn M. Frank ikerlariak (Frank 2011):

PROTO-euskera da hipotesia bat, asmatutako zerbait. Hori hizkuntza askotan egiten da, baina jakin behar da hipotesia horiek zenbateko pisua duten. Protoeuskera ez da egia bat, ez da berifikablea den gauza bat. Froga berri bat azaltzen denean, filologoak froga hori erabili behar du bere hipotesia aldatzeko, berritzeko, eta indartzeko. Baina Lakarra alderantziz ari da. Lakarrak bere hipotesia erabili du, begi aurrean dituen frogak txarrak direla esateko. Zientziaren aurkakoa da.

Lakarra jaunak *vrđin* (*vrđian*) *X isar* kasuan nola jokatu duen ikusita, ez zaio arrazoirik falta Roslyn M. Frank ikerlariari.

Azkenik. Horiek horrela, galdera da: non gorde behar dira faltsutzat jotako 400 grafito horiek? Zalantzarik gabe museo batean, esperientziak eta zientziak, *Coca Cola* soroan, egiaren argia zabaldu eta espekulazio guztiak (geurea barne) urratu ditzan arte.

Bibliografia

Agirre, Domingo, 1966, *Garoa, Azoka ta Dema*, Arantzazu: Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria.

-----, 1981, *Kresala, Ekatxa, Garizumako egunetan, Atsedeen orduak, Aterpen*, Arantzazu: Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria.

Ansorena, Jose Luis, 1968, *Landareen mundua*, Donostia: Financiera Comercial del Libro.

Azkue, Resurrección, 1969, *Diccionario Vasco-Español-Fraces*, Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca

Calvino, Italo, 1995, *Punto y aparte. La mirada del arqueólogo*, Barcelona: Tusquets

Dorronsoro, Lukas, 1970, *Izartegia, Erromako zubiaren izkutukia*, Donostia: Financiera Comercial del Libro.

Eco, Umberto, 1995, *Como se hace una tesis*, Barcelona: Gedisa.

Elizen Arteko Biblia, 2008, (EAB) Biblia en Euskara, Traducción Interconfesional). Online edizioa: <https://www.bible.com/es-ES/bible/223/rev.9.8.eabd>

Elhuyar Kultur Elkarte, 1966, *Hiztegia, Euskara-Gaztelania*, Usurbil: Elhuyar, K.E:

Euskaltzaindia, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia. Online edizioa: http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_content&view=article&id=276&Itemid=413&lang=eu

Frank, Roslyn, 2011, *Hernaniko Kronika*, Online edizioa: <http://www.kronika.eus/albisteak/hernani/albisteak/2011/01/09/72e184be61179/munduko-ikerlariak-sutan-daude-ikusita-iruna-veleian-egiten-ari-diren-txikizioa/>

Gran Enciclopedia Vasca, 1976, *Diccionario Retana de Autoridades de la lengua vasca*, Bilbao: Gran Enciclopedia Vasca.

Klaudio Harluxet Fundazioa, 1998, *Harluxet hiztegi entziklopedikoa*, Donostia: Klaudio Harluxet Fundazioa.

Labayru Fundazioa, 2015, *Labayru Hiztegia*, Bilbao Online edizioa: <https://hiztegia.labayru.eus/?locale=es>

Lakarra, Joseba, 2008. Informe sobre supuestas inscripciones eusquéricas antiguas de Veleia. Online edizioa: <http://www.sos-irunaveleia.org/sobre-supuestas-inscripciones-euskericas-antiguas-de-veleia>

Lhande, Pierre, *Euskaltzaindia, Bestelako hiztegiak, Aita Lhanderen hiztegia*. Euskaltzaindia Online edizioa: http://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/16542.pdf

Lizardi, Xabier, 1983, *Olerkiak. Biotz-begietan. Neskatx urdin-yantzia*. Donostia: Erein.

Mitxelena, Koldo, 1988, *Euskal idazlan guztiak II.Liburuak I*. Zarautz: Euskal Editoreen Elkarte.

Mocoroa, Justo Maria, 1990, *Ortik eta Emendik, Repertorio de locuciones del habla popular vasca*, Bilbao: Padres Escolapios. Labayru Ikastegia.

Moliner, María, 1991, *Diccionario de Uso del Español, Tomo II*, Madrid: Editorial Gredos.

Mugica, Placido, 1987, *Diccionario Castellano-Vasco*. Bilbao: Editorial Mensajero.

Oléron, Pierre, 1983, *L'argumentation*, Paris: Presses Universitaires de France.

Perelman, CH y Olbrechts-Tyteca, L, 2000, *Tratado de la argumentación, La nueva retórica*, Madrid: Editorial Gredos.

Real Academia de la lengua, 2017, *Diccionario de la lengua española*. Online edizioa:
<http://dle.rae.es/>

Van den Driessche, Koenraad, 2015, *Martin Almagro Gorbea y los allazgos excepcionales de Iruña-Veleia*, Online: <http://www.amaata.com/2015/01/martin-almagro-gorbea-y-los-hallazgos.html>